



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2008-06-20**

VIURTEA 1.465.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

GUZTIA PREST FESTARAKO

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Gaur ekingo diete San Joan jaiiei Belauntzan, Abaltzisketan eta Tolosan

EGITARAUA Kirol, kultur eta aisialdirako aukera izango da; Kortak eta Peñak desafioa egingo dute asteartean 2-8

Estebe Ezkurdia medikuak leitzarrak agurtu ditu

LEITZA «Gustura egondu naiz urte hauetan», aitortu zuen herenegun, bere azken egunean 11

«Udalak Haur Eskolaren inguruan hartutako erabaki larria» salatu dute

IBARRA Ezker abertzalearen ustez, «Udalak bizkarra eman dio herriari, izan duen jarrerarekin» 10

Sei urteko kartzela zigorra ezarri diete Maite Aranalde eta Haimar Altunari

TOLOSALDEA «Gaizkile elkartearen partaide izatea» leporatu die epaileak ibartarrari eta lizartzarrari 10



Carlos Peñak eta Jose Luis Kortak desafioa egingo dute elkarren aurka Oria ibaian, hilaren 24an, San Joan Egunean. I.T.

LASKORAIN IKASTOLA

SANJOANETAN EUSKARAZ

www.laskorainikastola.net
Tel.: 943 697 127
p. elektronikoa: tolosa@ikastola.net

1924

ECEIZA TOLOSA

TEILAK ETA ZIGARROTCHOAK

PABLO GOROSABEL, 34 • TEL.: 943 655161 • SAN FRANTZISKO, 8 • TEL.: 943 651916 • TOLOSA

Sanjoanetako azokan, elkartasun postuak eta bestelakoak

Ekonomia » Festen baitan, azoka berezia egingo da bihar goizean; Euskal Herriko nahiz kanpoko produktuak izango dira.

ERREDAKZIOA

Tolosako azokek duten garrantzia ikusita, ez da harrizkoa San Joan festei ere horrelako ekitaldi batekin ematea hasiera. Izan ere, bihar merkataritza gune irekia bihurtuko da goiz guztian zehar. Euskal Herriko txoko ezberdinetatik nahiz Errioxatik etorritako saltzaileak bilduko dira Trianguloan eta San Frantzisko ibiltokian.

Produktu aniztasun handia izango da biharkoan, guztiak kalitatezkoak gainera. Besteak beste, barazkiak, fruta, produktu biologi-

koak, ardoa, eztria, mermeladak, oreinkiak, ogia, pastak, gazta eta txokolataek izango dira salgai eta dastagai.

Berezitasun gisa, Gipuzkoako Pottokazaleen elkarteak pottoken erakusketara jarriko du Beotibar pilotalekuaren inguruan eta txikiak gainean ibiltzeko aukera izango dute. FAO erakundeak pottoka euskal zaldi arraza, desagertzeko arriskuan izendatzen zuen 1996an. «Geure ondare historikoa den animalia hau horren egoera larrian ikusirik» euskal zaldi arraza hau berreskuratzeko lana egiten ari da elkarteak.

Bi elkartasun postu

Biharko azoka berezian elkartasunarentzat tartea ere izango da. Bertan, Hego Ameriketako bi herrialderi laguntzeko ekimenak



Zerkasian, San Frantziskon eta Trianguloan egongo dira postuak. N. LATABURU

egingo dituzte. Alde batetik, *Txori-zo-pintxo solidarioa* izenpean, Amaroako Auzo Elkarteak kideek mokadutxo hauek salduko dituzte. Pintxoekin batera, honi lagun-

tzeko, ardoa ere eskainiko dute. Honez gain, Nikaraguako artisau produktuak salduko dituzte. Ateratzen den dirua herrialde horretako Malpaisilloko Xochilt Acalt

zentroko emakume antolatua egiten ari diren proiektuak laguntzeko erabiliko dute.

Samaniego Ikastetxeak eta Tolosako Haur Liburutegiak elkarlanean, *Mando Liburuzaina* ekimenaren baitan, postubatjarriko dute biharko azokan. Bertan, bigarren eskuko liburu, CD, VHS eta DVD-ak jarriko dituzte salgai. Hauek, aurreko asteetan bilduz joan dira.

Lortutako dirua Kolonbiako komunitate batean, liburutegi zerbitzu berezia jartzeko bideratuko dute. Lortu nahi dena zera da: Mando bat, alforjak, kultur-hezitzailearen soldata, liburuak eta ikas-materiala (nekazariguneean ibiliko den liburutegi mugikorra). Egitasmo honek proiektuaren parte-hartzeaz gain, liburutegiko zerbitzuak kaleratzea eta herritarrei hurbiltzea du helburu.

Samaniego ikastetxeak eta Haur Liburutegiak jarritako erakusmahaiarekin batera, ipuin kontalari baten saioa ere izango da 13:00etik aurrera. Gainera, liburutegiko txartela egiteko diptikoak eta eskaera orriak banatuko dituzte bertan. Baita betetako eskaera orriak jaso ere. Egun horretan jasotako eskaeren txartelak hilaren 25etik aurrera liburutegian eskuratzeko aukera izango dute herritarrak.

Errekortari onenen lehia bizia izango da bihar arratsaldean, zezen plazan

Gizartea » Errekortari 2008 Txapelketako lehen finalerdia jokatu da 18:00etatik aurrera; 20 lagun lehiatuko dira.

ERREDAKZIOA

Errekortari onek lehiari ariko dira bihar zezen plazan. Iaz antolatutako lehendabiziko saioaren ostean, aurten ere berriro ospatuko da lehiaketa. Txapelketabi finalerdik eta finalak osatzen dute, eta lehendabizikoa gure eskualdean jokatu da.

Biharkoan jokatu da txapelketako lehendabiziko norgehiagoka, 18:00etatik aurrera, Tolosako



Vaz Monteiro ganadutegiko zenzenak errekortatuko dituzte bihar. HITZA

zezen plazan. Ondoren, uztailearen 20an, Azpeitian ospatuko da bigarrena. Eta azkena, hau da, final handia, abuztuaren 10ean Nafarroan jokatu da. Tafallan, hain zuzen ere.

Finalderdi bakoitzean parte hartzen duten 20 errekortarietatik

zortzi sailkatzen dira. Finalean izango diren 16etatik berriz, 4 azken txanpara igaroko dira eta bertan erabakiko dute irabazlea. Biharko partaideak Euskal Herri-tik nahiz Espainiatik datoz.

Errekortea gero eta indar handiagoa hartzen ari den zaletasuna da. Iaz, milaka batzuk izan ziren Tolosan bildu ziren zaletuak. Errekortari 2008ren helburua da, errekorte libreko punta-puntako lehiaketa bilakatzea. Aurten ere, penintsulako 40 errekortari onenek parte hartuko dute. Irabazleek garaikurra eta 6.000 euro irabaziko dituzte. Inguruan jokatzen diren errekortari lehiaketetako saririk garrantzitsuenak da honako hau. Gainontzeko partaideek

» ERREKORTARI 2008 TXAPELKETA

- **1. finalerdia.** Ekainaren 21ean jokatu da, Tolosako zezen plazan. Ekitaldia 18:00etan hasiko da.
- **2. finalerdia.** Uztailearen 20an jokatu da Azpeitiko zenzen plazan. Ekitaldia 18:30ean hasiko da.
- **Finala.** Abuztuaren 10ean jokatu da Nafarroako Tafalla herrian. Azken norgehiagoka 18:00ean hasiko da.

ere sari garrantzitsuak etxeratuko dituzte.

Biharko saioan, Nafarroan dau den Vaz Monteiro ganadutegiko zenzenak errekortatuko dituzte. Taurovision da jaialdia antolatzen duen enpresa eta Azpeitian, Zezenbeltz zezenzale elkartearekin batera antolatu dute. Horrez gain, Tolosa, Azpeitia eta Tafallako udalteekek ere laguntzen dute lehiaketan.




OKINDEGLA
kixubi
Gozotegia eta kafetegia

GAURTIK AURRERA

ogi beroa eta aukera zabala produktu berriekin!

Erniobeaa, 3 · Billabona

Etorri eta dasta itzazu!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

L Laburrak

Eskolako ikasturte amaierako festa, gaur

ALKIZA ● Herriko eskolan ikasturte amaierako festa egingo dute gaur. Eguerdian guraso, ikasle eta irakasleek bazkaria egingo dute. 17:30ean, Kultur Etxean ikasleek antzerkia egingo dute.

Zumadi eskolako en jaialdia gaur, pilotalekuan

AMEZKETA ● Zumadi eskolako ikasturte bukaerako jaia izango da gaur, 15:00etan hasi eta 16:15ak arte. 2 urtetik 6. maila bitartekoek emanaldia eskainiko dute: abestiak, dantzak, antzerkiak, asmakizun bereziak... Ondoren, Guraso elkarteak prestatutako merienda izango da. Eskolako frontoian izango da jaialdia.

Astigarran kontzertua emango du Txintzarrik

ALEGIA ● Txintzarri abesbatzak kontzertua eskainiko du etzi, Astigarragako parrokian. 12:30ean izango da, eta beraiekin batera Astigarragako Aiztondo abesbatzar ariko da.

Aldaketak N-1 errepidean Ibarren eta Santa Luzian


AZPIEGITURAK ● N-1 errepidean Ibarrrako zubian eta Santa Luzia zubian egiten ari diren obark direlako, gaur 22:00etatik asteleheneko 07:00ak arte trafikoa moldatuko dute. Bihar Gasteiz aldera doan bidean bi noranzkoetan jarriko dute, eta etzi, Irun alderakoan bi noranzkoetan.

TSSTko langileak greba egingo dute hilaren 26an

GARRAIOA ● Donostia-Tolosa TSST tranbia lantegiko langileek elkarretaratzeko egingo dute gaur lantegiaren aurrean, eta greba deitu dute hilaren 26rako, LABek azaldu duenez. Zuzendaritzari konbenio berriaren negoziaketetan proposamen atzeragarriak en ditzala eskatzen diote.

Haur Liburutegiaren udako festa izango da gaur

TOLOSA ● Tolosako Haur Liburutegiaren udako festa antolatuta dute gaurko, Errotaren aurreko lorategia. 17:30ean 1, 2, 3... *liñaxito* (3. atala) bertso antzerkia izango da, 5-12 urte bitarteko haurrentzat. 18:30ean, berriz, Txokolata hartzeko aukera izango da. Euria eginez gero, festa Zerkausion izango da. Bestalde, ekainaren 25etik irailaren 5era arte Haur Liburutegia goizez zabalduko dutela adierazi dute, 10etatik 14:00etara, hain zuzen. Uda osoan kaleko Haur Liburutegi zerbitzua eskainiko dute, sarrerako terrazan eta lorategietan. Mahai-jokoak ere izango dira nahi dutenentzat.



Carlos Peña, Oscar Renedo eta Jose Luis Korta, atzoko aurkezpenari. I. TERRADILLOS

Carlos Peña igerilaria eta Jose Luis Korta arraunlaria aurrez aurre, Oria ibaian

Tolosa » Peñak igerian 500 metro egingo ditu, eta Kortak arraunean 1.000; asteartean, hilaren 24ean izango da proba berezia.

INIGO TERRADILLOS

Tradizioak mantendu, baina berrikuntzak sartzea izaten dute urtetik urtera helburu San Joan jaiek. Hain zuzen ere, aurtengo berrikuntzetako bat Carlos Peña igerilariaren eta Jose Luis Korta arraunlariaren arteko desafioa izango da, datorren asteartean, hilaren 24ean, 12:45 inguruan, estropaden finalean. Atzo izan ziren ekitaldi berezi honen protagonista, Oscar Renedo kirol zinegotziarekin batera, probaren nondik norakoak azaltzen.

Jose Luis Korta banakako batel batean ariko da, eta Carlos Peña, berriz, igerian. Peñak berak adierazi bezala, «maila berean balitz alde handia aterako lioke batelean doanak igerilariari», horregatik parekatu egin dute. Hala, 1.000 metro egingo ditu batelean Kortak, eta 500 metro igerian Peñak. Tartean zibogak egingo dira; «proba guztia zuzena balitz ere aldeia izango luke batelekoak, horregatik sartu ditugu zibogak, eta kasu horretan zailtasuna izango du Kortak, bakarka baitoa», gehitzen du igerilariak.

Carlos Peñaren ideia

Igerilari abenturazalearen ideia izan zen San Joan jaietan desafio berezi bat egitearena. Renedok azaldu bezala, «ideia azaldu zidan,

» HAINBAT DATU

- **Proba.** Carlos Peña igerian eta Jose Luis Korta arraunean ariko dira nor baino nor. Proba parekatzeko, Peñak 500 metro egingo ditu igerian, eta Kortak, berriz, 1.000 probarako prestatu duen banakako batelean. Ez da zuzena izango da, zibogak egingo dira.
- **Eguna eta ordua.** Asteartea, hilak 24, 12:45 inguruan. Batel estropaden finalekin batera izango da desafioa. Nesken finalak amaitzearekin batera izango da, eta desafioaren ostean, mutilen finalak izango dira.
- **Lekua.** Oria ibaian izango da, Zerkausion parean.

eta TAKekoengana jogenuen, baina hauek ez zuten argi ikusi; gero Peña Kortarekin jarri zen harremanetan eta arraunlari ezagunak baietz esan zuten; guri, Udalbezala, ekitaldi interesgarria iruditu zitzaigun San Joan jaien baitan sartzeko».

Ikusmin handia ari da sortzen

Herrian desafio berezi honen ingurukoak zabaltzen hasi zirenetik ikusmin handia ari dela sortzen gehitu zuten Renedok; izan ere, «bi kirolariak aski ezagunak dira gure artean eta proba kuriosoa da, orain arte egin ez dena».

Bere aldetik Jose Luis Kortak horrelako desafioen zalea dela, eta ezin ziola ezetz esan aipatu zuten. «Are gehiago uretan egiteko proba bat dela kontuan hartuta». Gainera, proba honen harira, «ni baino heroagoa den pertsona bat badagoela badakit, Carlos Peñaren ibil-

bidea ezagutu baitu», azaldu zuten Kortak txantxa moduan.

Arraunlariak Tolosako garai bateko estropadak ere ekarri zituen gogora aurkezpenean, eta berak ere izan zuela loturaren bat. Desafioaren inguruan, «proba polita egiten saiatuko gara, eta ea ikusleek gozatzan duten», azaldu zuten.

Arraunaren festa handia

Garai batean pisu handia izan zuen arraunak, eta orain TAK ari da lanean berriro ere kirol honek gurean indarra izan dezan. Hala, Peñak aipatu zuenez, «arraunaren inguruan nahi genuen ekimen berezi bat egin estropaden finalean, arraunaren festa handi eta polit bat egiteko, eta horrela izatea espero dugu».

Desafioa datorren asteartean izango da, batel estropaden finalekin batera. 12:00etan hasiko dira finaleko probak. Lehendabizi igandean sailkatuko diren neskek lehiatuko dira, eta ondoren izango da Peña eta Kortaren arteko desafioa. Behin desafioa amaituta, mutilen txanda izango da, eta hauen kasuan ere, igandean sailkatuko diren taldeak ariko dira nor baino nor.

S Sanjoanetako kirol jarduera

Ekainak 21, bihar

Txirindularitza

■ San Frantziskoko, kadete mailakoa, 16:00etan.

Zesta Punta

■ Beotibarren, 10:00etan.

Igeriketa

■ Usabal kiroldegian, 10:00etan.

Areto futbola

■ Tolosa Kup finala, 12:00etan.

Tenisa

■ Berazubini, Tenis txapelketako finalak, arratsaldean.

Sega

■ II. Sega Txapelketa, lurreamendiko zelaietan, arratsaldean.

Eskubaloia

■ San Joan Txapelketa, Usabalaen, goizez eta arratsaldez.

Futbola

■ Lasa Memorialeko partidak, goizez eta arratsaldez, Berazubini.

Ekainak 22, etzi

Xakea

■ Kultur Etxean, 10:00etan.

Estropadak

■ Sailkapen probak, 12:00etan, Oria ibaian.

Paddela

■ Usabalen finalak, goizean.

Ekainak 23, astelehena

Squash

■ Usabal kiroldegian, finalak, arratsaldean.

Toka

■ San Frantziskoko, Harizpe elkarretaren eskutik, 11:00etan.

Pelota

■ Bengoetxea VI. Arretxe II.aren aurkako partida, Beotibarren.

Ekainak 24, asteartea

Estropadak

■ Finalak, 12:00etatik aurrera, Oria ibaian.

Txirindularitza

■ Kriteriuma, zirkuitu motza, 18:00etatik 20:00etara.

■ Afizionatuak, San Frantziskoko, 09:00etan.

Desafioa

■ Carlos Peña-Jose Luis Korta desafioa, Oria ibaian, 12:45ean.

Ekainak 28, larunbata

Areto Futbola

■ Arsenal txapelketako partidak, Usabal kiroldegian, arratsaldean.

Pelota

■ V. HITZA Pilota Txapelketako finalak, Beotibarren, 10:00etan.

Spinning

■ Kilometroak 08k antolatuta, Bizkileta Festa Zerkausionen goiko pisuan, 16:00etatik aurrera.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Neska/emakume euskalduna behar da, haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ez da udarako. Interesatuak deitu 635 72 20 47 edo 635 71 24 41era.

GALDUTAKOAK

■ **Giltzak.** Ibarren, astelehenean Kultur Etxetik plazarako bidean giltzak galdu ziren. Aurkitzen dituenak Kultur Etxera eraman ditzala mesedez.

IZPIRITU TXARRAK SUTARA

Urteko gaurik majikoenaren atarian, eskualdeko herriek ekitaldi ugari antolatu dituzte San Joan suaren inguruan. Tolosan, Abaltzisketan eta Belauntzan, gainera, herriko zaindaria ere bada Joan Deuna. Hori dela-eta eskualdeko hiru herri hauetan egitaraua zabalagoa da. Hona hemen zehaztuta, herriz herri, sanjoanak ospatzeko antolatu dutena.

» EGITARAUAK HERRIZ HERRI

ABALTZISKETA

Ekainak 20, gaur

■ **20:30.** Barrikotea herriko plazan (afaria norberak eramanda)
■ **Ondoren.** Bertso-saioa Iker Zubeldia (Txapi) eta Iban Urdangari-
nekin
■ **23:30.** Kontzertuak: Hell beer
boys, Mantis eta Ezinean.

Ekainak 21, bihar

■ **15:30.** VI. Mus txapelketa Larrun-
nari elkartean.
■ **21:00.** Sagardo dastaketa herri-
ko plazan (afaria norbere kontu-
ra). Jarraian, txerri harropaketa her-
riko pilotalekuan.
■ **Ondoren.** kontzertua Kupela tal-
dearekin.

Ekainak 22, etzi

■ **10:30.** VI. Plater tiraketa lehiaketa
herritarrentzat
■ **12:30.** txakolin poteoa, Xapre
eta Furriela trikitilariarekin alaitu-
rik.
■ **18:00.** zaldi karrera Amezketatik
Abaltzisketara (Arratsalde guz-
tian zehar, zaldian ibiltzeko aukera
egongo da).
■ **Ondoren.** txalapartariak eta triki-
tilariak izango dira.
■ **21:00.** afaria herriko plazan (nor-
berak eramanda, baina edaria ber-
tan emango da).
■ **22:30.** Auzolanean emanaldia.
Trikitixa, dantza eta bertsoak uz-
tarten dituen ekitaldia.

Ekainak 23, astelehena

■ **11:30.** Ume jolasak herriko hau-
rrentzat. Ondoren hamaiketakoa.
■ **21:30.** San Juan Sua. Ondoren,
San Juan Dantza eta Soka Dantza
herriko gaztetxoek dantzaturik
■ **22:30.** Asto karrera.
■ **Ondoren.** Dantzaldia Imuntzo
eta Belokirekin.

Ekainak 24, asteartea

■ **11:00.** Meza Nagusia.
■ **Jarraian.** Herriko gazteen trikiti-
xa emanaldia eta kantaldia Inazio
Barberiararen eskutik.
■ **Bitartean.** Jubilatuentzat hamai-
ketakoa.
■ **13:00.** IV. Toka txapelketa herri-
ko plazan.
■ **17:00.** Pilota partidak.
■ **Jarraian.** TZ trikitilarien emanal-
dia
■ **22:30.** Festei amaiera emateko,
erronomia TZ taldearekin
■ **Atsedeanaldian.** herriko eskola-
ren aldeko txekorraren zozketa.

BELAUNTZA

Ekainak 21, larunbata

■ Festen hasiera etxafuegoekin.

■ **21:00.** Herri afaria Pagadi osaba-
ilobak trikitilariarekin.

Ekainak 22, igandea

■ **12:00.** Meza. Ondoren hamai-
ketakoa.
■ **17:30.** Herri Kirolak: Harrijaso-
tzaileak eta aizkolariak. Ondoren
sagardo dastaketa gaztatekin.

Ekainak 23, astelehena

■ **17:00.** Ume jolasak. Ondoren
txokolatada.
■ **21:00.** San Juan sua kanpai eta
etxafuegoekin batera.
■ **Ekainak 24, asteartea**
■ **11:00.** Txuntxuneroak herrian
zehar etxafuegoekin.
■ **12:00.** Meza Nagusia. Ondoren
hamaiketakoa bertsoariarekin.
■ **17:00.** Pilota partidak. Ondoren
ahari jokua.
■ Ondoren, kostilla jatea barrikote-
arekin eta trikitilariarekin, jaiari
amaiera emateko.

TOLOSA

Ekainak 20, gaur

■ **17:30.** Haur Liburutegiko udako
festa: 1, 2, 3, ... *Inaxito* bertso antzer-
kia. Ondoren txokolatada.
■ **20:00.** Berdura plazan, Isidro
Larrañaga akordeoi orkestraren
kontzertua.
■ **20:30.** Leidor antzokian *Hor al
zaude* antzezlan.
■ **22:00.** Kultur Etxean, Javi Mu-
guruzaren kontzertua.

Ekainak 21, bihar

■ **09:00.** Goiz guztian, sanjoane-
tako aparteko azoka.
■ **10:00.** Beotibar pilotalekuan,
Tolosako Beotibar Zesta Punta Es-
kolak antolatuta, XVII. San Joan
Zesta-Punta Txapelketa.
■ **10:00.** Usabal kiroldegian, igeri-
keta probak, XL. San Joan saria.
■ **10:30.** Usabal kiroldegian, koad-
rilen arteko Tolosa Kup areto fut-
bol txapelketaren finalak.
■ **10:30.** Haurrentzat entzierroa,
irteera Plaza Berititik.
■ **11:00.** Erraldoi eta buruhandiak,
Tolosako Dultzaineroekin. Irteera
Plaza Zaharretik.
■ **11:00.** Bonberenea Txaranga kale-
lez kale ibiliko da.
■ **11:30.** Tolosako Koadrilen Egu-
nari hasiera Plaza Zaharreen. Egun
osoan: jokoan, txiste, irrintzi eta
bertos lehiaketak, kalejira, dantzal-
dia,... Txaranga eta dultzaineroak.
■ **12:00.** Suziria udaletzeko balkoi-
tik, eta kanpai hotsa, jaien hasiera
iragartzeko.
■ **14:30.** Ferialekuan, koadrilen her-
ri bazkaria. Ondoren, Unsain
anaiak, Xanpetiki-dantza eta La-
rrindantza.
■ **16:00.** Txirindulariak, Agustín
Urkola proba, Oriako txirindulari
elkartek antolatuta.
■ **17:00.** Haur Liburutegiak antola-
tuta, 4 urtetik gorako haurrentzat
Ildoia Sanchez kontularia
Trianguloan.

■ **18:00.** Sortzez Garbia plazan
haur ikuskizuna, *Hortzmuga*.
■ **18:00.** Berazubin, tenisa. San
Joan sariaren finalak.
■ **18:00.** Zezen plazan, zezen erre-
kortarien IV. Lehiaketa adarpun-
tak moztu gabeko zezenekin.
■ **18:00.** Usabal kiroldegian, esku-
balo San Joan sariaren finalak.
■ **18:30.** Tolosak margolarien XLIII.
erakusketaren inagurazioa Txin-
parta elkartean.
■ **19:00.** Berdura plazan, Sagardo
Txapelketa, San Joan saria. Sagard-
o dastatzea.
■ **19:00.** Oriako txaranga eta Mu-
lambo perkusio taldea kalez kale.
■ **22:30.** Euskal Herria plazan kon-
zertua: Oskorri eta Tolosako Mu-
sika Banda (euriarekin, Leidorren).
■ **23:00.** Plaza Berrian Angelais
eta Ortophonk musika taldeen
emanaldia, ondoren Parrucho
DJaren emanaldia.

Ekainak 22, etzi

■ **09:00.** Diana, GiroArte dultzai-
na taldearekin.
■ **10:00.** Xake-jokoa, Kultur Etxe-
an, Tolosako Xake elkarteak anto-
latuta: XXXV. Nazioarteko Lehi-
keta taldeko XXXII. Enrique Pine-
da memoria.
■ **11:00.** Goizez eta arratsaldez
(11:00/13:30 eta 16:00/19:30)
haur jaialdia, Sortzez Garbia pla-
zan; gaztelu, ohe elastiko, tren txi-
ki, bufalo amerikar,...

■ **12:00.** Ori ibaian batel estropa-
dak (sailkapen probak).
■ **12:00.** Usabal kiroldegian padel
txapelketen finalak, XVIII. San
Joan saria.
■ **14:30.** Zerkausian, zezen zale el-
kartean herri bazkaria.
■ **17:00.** Plaza Zaharretik zezen
plazara, aurkezpen paseoa, Tolo-
sako Musika Banda, agoaziltxo eta
zaldi mutilekin.
■ **18:00.** Berdura plazan, *Gari,
Mantxo eta Joxeleantxo* haur ikus-
kizuna.
■ **18:00.** Korrida, zezen plazan. El
Cortijillo ganadu etxeko 6 zezen
toreatuko dituzte Javier Conde,
Juan Bautista eta Ivan Fandiño to-
reatzaileek.
■ **18:00.** Erraldoi eta buruhandiak,
Tolosako Dultzaineroekin. Irteera
Plaza Zaharretik.
■ **19:30.** Mariatxi Imperial Azteca
taldearen kalejira.
■ **23:00.** Su festak I. bilduma: Z.
Caballer.
■ **23:30.** Berdura plazan kontzer-
tua: Mariatxi Imperial Azteca tal-
dearen eskutik.
■ **23:30.** Plaza Berrian Desordutan
eta Kerobia taldeen emanaldia,
ondoren, Makala DJaren emanal-
dia.

Ekainak 23, astelehena

■ **11:00.** Goizez eta arratsaldez
(11:00/13:30 eta 16:00/19:30)
haur jaialdia, Sortzez Garbia pla-
zan; gaztelu, ohe elastiko, tren txi-
ki, bufalo amerikar, ...
■ **11:00.** San Frantzisko paseale-
kuan, Tolosako Harizpe elkarteak
antolatuta, Toka Lehiaketa.
■ **12:00.** Berdura plazan Ertzain-
tzaren musika bandaren kontzer-
tua.
■ **17:00.** Txistularien kalejira, an-
tzinako erronda bidetik barrena.
■ **18:00.** Sortzez Garbia plazan,
haur ikuskizuna, Kiki, Koko eta
Moko.
■ **18:00.** Usabal kiroldegian,
Squash Txapelketan finalak, XVIII.
San Joan saria.
■ **18:00.** Trianguloan Herri kirol
saioa.
■ **19:30.** Zerkausian bertso jaial-
dia: Anjel Mari Peñagarikano,
Amaia Agirre, Jexux Mari Irazu eta
Iker Zubeldia, gai jartzaile Iker
Iriarte.
■ **19:30.** Udaltza Plaza Zaharretik
aibatuko da Arrameleko San
Joan kaperako bezperetan eta
arrats otoitzetan parte hartzeko.
■ **22:00.** San Joan sua, Andre Ma-
ria plazan, Udaltza bertan dela.
Ondoren, Udaberri Dantzari tal-
dek eta Tolosako Musika bandak



Hainbat denbora geldirik egon ostean, berriro ere Tolosako kaleak hartuko dituzte erraldoiek. E. EZEIZA

jardungo dute. San Joan zortzikoa jo ondoren, musik banda kalez kale ibiltzera abiatuko da. Jarraian, Tolosako Orfeoik kantatuko du.

■ **23:30.** Euskal Herria plazan ikuskizuna: Kora (Senegal). Euria eginez gero, Leidorren.

■ **23:30.** Berdura plazan, kontzertu: Pier Paul Berzoiz abeslariaren eskutik.

■ **23:30.** Plaza Berrian disko jaia: Abiba.

Ekainak 24, asteartea

■ **07:00.** Alkate Soinuua Tolosako Txistulari Bandaren eskutik.

■ **08:30.** Diana, Tolosako Musika bandarekin.

■ **08:45.** Diana, Tolosako eta Iruñeko txistulari bandekin.

■ **09:00.** Diana, GiroArte dultzaina taldearekin.

■ **09:00.** Txirindulariak 1. eta 2. mailako afizionatuen proba, XXXV. Jose M. Anza Memoria; Oriako Txirindulari Eskolak antolatuta.

■ **09:30.** Plaza Zaharreen Eskopetariak eta Tolosako Musika Banda bilduko dira. Diana, desfilea eta, ondoren, San Joan alardea, Gipuzkoako antzinako foru milizien oroienez Udaltzatzak presidituta.

■ **10:00.** Meza Nagusia, Santa Maria parrokian. Ondoren, prozesioa. Bertan parte hartuko dute Udaltzatzak, kofradiek, Tolosako bordondantzariak eta erraldoiak; aldi berean, elkarteetako eskopetariak ordentzetako salbak botako dituzte betiko tokietan. Elizkizunak amaitu ondoren, eskopetari konpainiak Foruen plazan (Trianguluan) bilduko dira berrito, azken deskargak egiteko.

■ **11:00.** Goizez eta arratsalde (11:00/13:30 eta 16:00/19:30) haur jaialdia, Sortzez Garbia plazan; gaztelu, ohe elastiko, tren txiki, bufalo amerikar,...

■ **11:30.** Iraunkorrek txaranga kalez kale ibiliko da.

■ **11:45.** Txirindulariak: XXXV. Jose M. Anza memoria.

■ **12:00.** Oria ibaian batel estropadak finalak. Ondoren, desafio: Jose Luis Korta arraunean eta Karlos Peña igeri.

■ **13:00.** Kontzertua Plaza Berrian Tolosako Musika Banda eta Tolosa eta Iruñeko udal txistulariekin.

■ **16:45.** Udaltzatzak, Tolosako Musika Banda, txistulari, bordondantzari eta eskopetariak Plaza Zaharretik abiatuko dira, Santa Maria eliza nagusiko bezperetara joateko. Ondoren, Arrameleko San Joan kaperan izango diren arrats otoitzetan parte hartuko dute. Elizkizuna amaitzean, Udaltzatzak, bordondantzariak, txistulariak, Musika Banda eta eskopetariaren konpainiak Foruen plazan (Trianguluan) bilduko dira, bertan azken deskargak egiteko. Ondoren, Udaltzatzak, Zumardiaundira joango da. Han ohi-tzarzko aurrekua dantzatuko da.

■ **18:00.** Zezen plazan zaldi flamenko ikuskizuna Juan Pedro Omos zaldunaren eskutik.

■ **18:00.** San Frantzisko pasealekuan txirindulari Criterium-a, Jose Manuel Ansorena XII. memoria Oriako Txirindulari Eskolak antolatuta. Emakumezko, katede, gazte eta afizionatu mailako txirindulariek hartuko dute parte.

■ **20:00.** Marmara musik taldea.

■ **23:00.** Su festak, 2. bilduma: Pableno Piroteknia.

Uztailak 6, igandea
■ Jubilatuen bazkaria.

ADUNA

Ekainak 23, astelehena
■ **20:30.** Sua piztuko dute.
■ **21:00.** Afaria Txulobi elkartean.

ALBIZTUR

Ekainak 23, astelehena
■ **22:00.** San Joan sua Gomaztegi-ko bihurgunean.

ALEGIA

Ekainak 23, astelehena

■ **20:45.** Salbea.
■ **21:00.** Emanaldia plazan: Txin-tzarri abesbatza, herriko dantzariak, herriko txistulariak. Ondoren, bedeinkapena eta San Joan sua.

ALKIZA

Ekainak 23, astelehena
■ **20:00.** Parrillada plazan. Ondoren, sorgin dantza.
■ **22:00.** Sua piztuko dute.

ALTZO

Ekainak 23, astelehena
■ **09:15.** Sua piztu, bedeinkatu, Artea dantza taldearen saioa eta zahgi ardoa. Ardoa Udalaren kontu.

ANOETA

Ekainak 23, astelehena
■ **18:00.** Buruhandi eta erraldoien kalejira herriko txistulariekin.
■ **18:00.** Herri afaria plazan.
■ **22:45.** Txalapatariak San Joan bezperako suaren jaia iragarriko dute. Ondoren, suaren inguruan San Joan zortziko kantuak eta erromeria Landa aita-seeekin.

Ekainak 24, asteartea

■ **11:00.** Herriko txistularien kalejira.
■ **12:00.** Meza jubilatuei eskainia. Ondoren, udal dantzari eta txistulariak ariko dira herriko jubilatuen onenez.
■ **13:30.** Herriko jubilatua eta pentodiadun bazkaria eta dantzaldia Ikastolan.

ASTEASU

Ekainak 23, astelehena
■ **21:00.** Sua piztuko dute plazan. Ondoren txokolatea banatuko dute.

BALIARRAIN

Ekainak 22, etzi
■ **10:00.** Plazatik abiatuta, herriko

mugarriak eta basoak ezagutzeko ibilaldia, Jose Antonio Jauregiren IV. oroitzapenez.

Ekainak 23, astelehena

■ **20:00.** Afaria pilotalekuan. Sargardoa eta ardoa jai batzordeak jarriko du eta herritarrek janaria eraman beharko dute.
■ **Ondoren.** San Joan sua herriko plazan.

BERROBI

Ekainak 23, astelehena
■ **22:00.** San Joan sua, Urruti etxearen ondoan.

BIDEGOIAN

Ekainak 23, astelehena
■ **22:00.** San Joan sua udal parkean. Aurretik afari merienda egingo dute, norberak eramanda. Edaria guraso elkartearen eskutik.

HERNIALDE

Ekainak 23, astelehena
■ **20:00.** Zagi-ardoa. Norberak eraman beharko du janaria eta Udalak jarriko du edaria.
■ **22:30.** San Joan sua.

IKAZTEGIETA

Ekainak 23, astelehena
■ **21:00.** Plazan bildu. Udalak zahgi ardoa jarriko du, eta norberak bere afaria eramango du. Udalak aulki eta mahaia jarriko ditu afaltzeko.
■ **23:30.** Sua piztu, eta ondoren herritarrok San Joan zortzikoa dantzatuko dute.

IRURA

Ekainak 23, astelehena
■ **19:00.** Antzerki eskolako ikasle-emanaldia.
■ **22:00.** San Joan sua kanpai hotsekin. Gero San Joan Maritza eta dantzarien emanaldia. Ondoren,

ardo goxoa eta pastak banatuko dira.

LARRAUL

Ekainak 23, astelehena
■ **18:00.** Plazan elkartuko dira. haurrek pampinak egingo dituzte eta helduek parrilako sua prestatuko dute.
■ **21:00.** Afaria. Ondoren sua piztu eta gero herriko musika ikaslearen emanaldia.

LEITZA

Ekainak 23, astelehena
■ **Arratsaldean.** Ingurutxo dantzatuko dute plazan. Ondoren, bero txistor opilak banatuko dituzte.
■ **Gaeon.** Herri-afaria norberak bere etxetik janaria eramanda.
■ **Ondoren,** Incansables txaranga.

OREXA

Ekainak 23, astelehena
■ **20:30.** Afaria eta, ondoren, San Joan sua.

TXARAMA

Ekainak 23, astelehena
■ **20:30.** Festa batzordeak antolatuta, afaria plazan.
■ **22:00.** San Joan sua.

VILLABONA

Ekainak 23, astelehena
■ **22:00.** Sua Errebote plazan.

ZIZURKIL

Ekainak 23, astelehena
■ **20:00.** Pesus plazan herritarrek bilduko dira eta Elbarrenako su ezberdinak bisitatuko dituzte kalejiran.
■ **22:00.** Udaletxe aurrealdean sua eta txokolatada.
■ **22:30.** Pesus plazako sua piztuko dute, San Joan dantza egin eta ondoren zizka-mizkak.

Tolosaldea BUS S.L.
Ondo pasa Sanjoanaki!
Ibilaldia • Etxeak Agurteriak • Ikaztegiak Kiroi taldeak
Tel eta fax: 943 650621 • 619 723 819 • Donostia Eorb. 9 • TOLOSA

IKATZA
PINTXOAK - BOKATAK
ANOAK
PLATER KONBINATUAK
Plaza Berria, 6 • 20400 Tolosa
Tel.: 943 67 49 13

MATXINA Sanjoanak ondo pasa!!
Etxekotresna elektrikoek konponketa
Laskorain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34

Marcel LEARMINDEGINDO ZAK
EDERGINTZA Santa Klara, 9
TOLOSA 943 671936

ZERBITZU BULEGOA
AIXA
Nominak - Kontabilitateak
Zergak- Autonomoak
Pablo Gorosabel, 4 - 1.esk
TOLOSA
Tel.: 943 65 03 03
Faxa.: 943 65 22 22
mjhuarte@euskalnet.net

ESTALDUREN ERABERRITZEA
FATXADA ETA ETXEBIZITZAK
IGELTSERITZA ORO HAR
PAGOLA ERAIKVNTZAK, S.L.
Izaskun Bidea, 7 behe
Tel.: 943 67 57 53 • Faxa: 943 67 02 33
Sakelakoa: 606 98 11 35 - 606 98 10 80
20400 TOLOSA

• Dietafacil
• Naturopatia
• Makilaje ikastaroak
parafarmazia farmadenda
farmadenda@euskalnet.net
lurre auzoa, 7 • Tolosa • Tel.: 943 57 95 28

Musika San Joan Egunean kontzertuan musikariak eta txistulariek Jose Antonio Ruiz Bona zuzendari ohia oroituko dute, bere heriotzaren 25. urteurrena dela eta.

Ruiz Bonaren heriotzaren 25. urtemuga gogoan



Jose Antonio Ruiz Bona Tolosa Musika Bandako zuzendari izan zen. [»»»](#)

JOKEM SAIZAR

Tolosako Musika Bandak eta Irubako eta Tolosako udal txistulari bandek urtero San Joan Egunean eskaintzen duten kontzertu berezia Jose Antonio Ruiz Bona zuzendari ohia izango dute gogoan, bere heriotzaren 25. urtemugari. Ruiz Bona maizsa Udala Musika Bandako eta Udala Musika Akademiko (gaur hartan hala deitzen ziren ikas) zuzendari izan zen 1965etik 1983ra bitarte.

Jose Antonio Ruiz Bona Calahorra (Ertziola) jaio zen 1929an, baina tokian diti Ertziolara bizi zuen. Hernani eta Pasiako bandak zuzendu zituen Tolosa eta Ertziolara bitartean. Bona zuzendari hil zenean, Manuel Valmaseda zuzendariordea jarri zuten behin bertiko zuzendari, erroiratu arte. Ordan sartu zen udal bandako eta udal musika akademiko zuzendari, oposizio-lehiaketa bidez. Gaur egungo bandako ikas batzuek gogoratzen dute oposizio lehiaketa hura. Sienan

(Italia) ikasteko Castellblanch Fundazioaren beka lortu zuen Ruiz Bonak. «Franco Ferrera Ilarrak eta nazioarte musikako beste maiz batzuen anekdotak kontatzen zizkidan askotan klasean», gogoratzen du gaur egun orkestra zuzendari, komposatzaile eta orkestratzaile ezaguna den Enrique Ugarte bere ikasle ohiak.

Bandan eta eskola berituz
Bandarako bizi zuen eta negatiko kontzertu zirkulo ezarri zuen Iparragirre antzokiari, ordu arte erabiltzen zuten Zerkasako baldintzak hobetuz. Bere garairan Udala Musika Bandak Gipuzkoako beste hainbat herrian aritu zen.

Udal Musika Akademia indar-tertozio alilegin handiak egin zituen. Besteak beste, Itxaso Bandak sortu zuen eta hainbat kontzertu eskaini zuen berarekin.

Eduardo Mokoroaren *Leidor* opera aurkezteko ametsa zuen, baina 1983an hil zen 54 urterekin eta ametsa bere gabe utzi zuen. Gorputzen herena dala ezagutzen egiten zuten Udalak, ondoren hilaletan zuzendari, oposizio-lehiaketa bidez. Gaur egungo bandako ikas batzuek gogoratzen dute oposizio lehiaketa hura. Sienan

Agur *Jaunak!* jo zuen Bandak. Ruiz Bonak hurreman izan zuen Donostia, Hernani eta Pasiako musika banden lore kororak izan ziren.

Herriko abesbatza, txistulari eta dantzari taldeekin batera prestatzen ari zen kontzertu berezia, maizsa hil eta hurrengo urteko sasoan egin zuten Euskal Herri plazan bere onenak, bera orkestratu zuen Luis Mari Gaztiaz Artetxeren zuzendaritzapean. Zuzendari tolosar honek, beraz, 25 urte bete ditu aurretik Musika Bandako zuzendari gisa.

Kontzertu hartan Ruiz Bonaren *Garai alaiak* birbilketa (bere liburu eskainia, hasieran Pompeio oliniko deitu zioi), maiz berak moldatutako Pablo Sorozabalen *44* tierru musika eta Jesus Guadiren *Enako* irubiki eskaini zuten herri talde guztien artean. Handik aurrera, ghaigotzen errepertorio izan da sasoan herriko musika eta dantza taldeen arteko elkarlana.

Bere obra eskainiko dute
Aurtengo San Joan Eguneko kontzertu berezi honetan (eguerdiko 13:00etan Plaza Bertan) ere txistulariek eta musikariak zuzendari ohiaren *Garai alaiak* birbilketa eskainiko dute elkarrekin. Aurretik txistulariek beste doinu batzuk eta ondoren, Musika Bandak Sotara rockeroaren doinu ezagun batzuk, Anton Dvorak-en *Morad* berriaren anfitrioi eta Abel Morenoren *Torax en el puerto* pasadoblea eskainiko ditu.



» ZINTILOA

1. Zein izan zen zure harremana Jose Antonio Ruiz Bonarekin? 2. Nolako pertsona, irakase eta musikari izan zen?



«Garrantzitsua izan zen Tolosarako»

Miguel Zuberio
HEBIZTAR ETAKO ORKESTRA ZUZENDARIA

1. Sai urterekin hasi nintzen berarekin solfeo, pianoa eta harmonia ikasten.
2. Ehotu oneko giroa zen, pazientzia handikoa, atsegina, bihotz-bera. Profesional ona zen, ondo egiten zituen gauzak, bere lanbide sakon bizi zuen. Behintzat lortu zuen guk Donostiako Kontsebatorearen libre joanda gaiak aprobatastea eta bere ikasle batzuk aurrera aterata gara musika munduan. Kontzertu zera joatea gomendatzen zigun. Garai zalak bizi zituen garairan babilas gutxi izan zituelako, baina garrantzitsua izan zen Tolosarako. Mokoroari jarraitzea eman eta haren hutsunea bete zuen nolabait, nahiz eta haren harremanek ez izan garai desberdinetakoak izan zirelako. Musika Akademia nahiko utzita zegoen eta bere ekimenek indartu egin zen.



«Pertsona, zuzendari eta musikari ona zen»

Luis Mari Gaztiaz Artetxe
MUSIKA BANDA ZUZENDARIA

1. Bandako kide nintzen bera sartu zenean, klarinetea jotzen nuen. Ceferrino Rico zen orduan zuzendariordea eta hura erretiratu zenean ni sartu nintzen. Harreman handia izan genuen geroztik. Inauterian eta kalejira batzuetan orkestratu egiten nuen, ez zituelako oso gustuko. Berak nahago zuen kontzertuak eta hornelakoak zuzendatzen.
2. Pertsona, zuzendari eta musikari ona zen. Inoiz ez zen haserretzen. Bandan asko maite genuen. Bere partiturak oso bukatuak dira, oraindik bereritatu ditut.



«Nazioarteko zuzendari izatea merezi zuen»

Enrique Ugarte
ORKESTRA ZUZENDARIA, KONPOSATZAILA

1. Solfeo eta oboloak lehen urteko irakasle izan nuen. Eta Bandako zuzendari izan zen bertan oboloa jo nuenean, 11 urtekin 22 urtera.
2. Oso atsegina zen eta oso ondo tratatzen zituen ikasleak eta Bandako musikariak. Musikari zuzendari eta irakasle oso ona zen, musika gaitasuna handia zuelako. Niri asko erakartu zidan. Formazio ona zuen, Espainia eta Italiako maiz handekin ikasi zuelako. Orkestra zuzendari gisa, nazioarteko karriera egitea merezi zuen Ruiz Bona maizak.



«Musikarako zaletasuna esnatu zuen nigan»

German Ormazabal
EUSKAL ORKESTRA ZUZENDARI OHIA

1. Solfeo, piano eta harmonia ikasi nuen berarekin lauti bat urte. Akordea ikasten hasi nintzanean pianoa utzi nuen, baina handik hiru-betete gutxira berriro hasi nintzen berari esker.
2. Gizon oso edukatua, forma aldiak oso atsegina zen. Oso langile eta zorrotza zen. Musika gutxi eskuz idazten zen garai hartan eta oso idazkera bukatu zuen. Musika osotasunaren harritzen zuen, ez materia gisa bakarrik. Musika zuzendari gisa, nazioarteko karriera egitea merezi zuen Ruiz Bona maizak.



«Musikarako eta Bandarako bizi zen»

Enrique Azurza
HEBIZTAR ZUZENDARIA

1. Solfeo, pianoa eta musikaren hasi nintzen berarekin ikasi nintzen. Berarekin sartu nintza bultzatzen musika munduan eta bere klaseetan sententzioak transmititu zizkidani irakase gisa.
2. Oso gizon atsegina zen Ruiz Bona maizsa. Musika irakasketa baxu baxu zuzentzen zuten lana maite egiten zuen. Musika irakasketa Bandarako bizi zela esan daitake. Gaur hartan urtea nintzen, baina abesbatza munduarekin ez zuten harreman handirik izan, nik dakidala.

aldama_tapia
ahokulturatik
Tel: 943 65 03 75 Fax: 943 65 52 06
Foruen Etorbidea, 7 - 20400_TOLOSA - Gipuzkoa
gibose@aldamapia.com - www.aldamapia.com

Zumardi
ahokulturatik integratu
San Joan festa zoriortuak
opari ditazue
Laskurain, 8 behea - TOLOSA
Tel: 943 65 18 78 - Tel/Fax: 943 65 18 77

in gremioen koordinazioa
Sarjotunak ondo pasat!

Bridge
Luzapaga Kulturak
Pablo Carrasquel 2 - 1A
20400 TOLOSA - Gipuzkoa
www.bridge2005.com
943 650 070 Fax: 680 222 526
bridge2005@bridge2005.com

EUSKAL JANTZIAK BORDATU PERTSONALIZATUAK
www.ganbara.com
GANBARA
EUSKAL DENDA
Gudari kalea, 16 - 20400 Tolosa - EUSKAL HERRIA
943670087 - ganbaratol@hotmail.com

08
San Joanak
TOLOSA

Oskorri eta Musika Banda elkarrekin ariko dira gaur

Musika » 'Banda band' proiektuarekin jarraituz, gaur gauean Oskorriren doinu ezagunenak interpretatuko dituzte Euskal Herria plazan.

JOXEMI SAIZAR

Gaur gauean, 22:30ean, Euskal Herria plazan (euria egiten badu, Leidor aretoan), kontzertu berezia eskainiko dute Tolosako Musika Bandak eta Oskorri folk talde ezagunak. Kontzertua doakoa izango da, aurtengo sanjoanetako egitarauaren barne.

Bilboko Musika Bandarekin grabatu zuen *Oskorri Banda Band* diskoa iaz argitaratu ondoren, bere 33.a da, Euskal Herriko eta kanpoko hainbat musika bandarekin ari da Oskorri kontzertuak eskaintzen. Tolosako Musika Bandak ere eskaintza jaso zuen, onartu eta kontzertu berezia prestatzeaz ekin zion duela hilabete batzuk eta gaur izango dute herritarrek lan horren emaitza ikusteko aukera bakarra...

Bilboko musika bandak duela hiruzpalau urte proposatu zion Oskorriri disko hau kaleratzea eta iaz, taldearen 35. urtemuga zela aprobetxatuz, diskoa grabatu zuten bien artean.

Aurreko lanik handiena taldearen doinuak bandarako moldatzen hartu zuten, Oskorriren betiko soinun partikularra eta banden pertsonalitatea behar bezala uzartu ahal izateko diskorako. Hilario Extremiama moldatzaile ezaguna eta euskal moldatzaileen elkarteko lehendakaria aritu zen lan horretan, emaitza ezin hobea lortuz.

Emanaldi ugari

Lan hori aprobeatxatuz, grabazioaren ondoren, zuzeneko emanaldiak etorri dira, lehendabizi Bilboko Udala Bandarekin, eta ondoren

beste hainbat bandarekin egiten ari diren kontzertuak. Proiektu berritzaile hau dela eta ohiko beste emanaldiekin batera (duela gutxi Villabonan eskaini duten *Pub ibiltaria*, adibidez), atsedeenik ezin hartu ari da azkenaldi hilabete hauetan Oskorri. Orain arte 25 bat emanaldi izan dituzte aurten Euskal Herri osoan (Donostia, Gasteiz, Baiona, Donibane Lohitzune, Hendaia, Andoain, Pasaia...) eta baita kanpoan ere: Bartzelona, Javea (Alacant) eta Aranjuez (Madrid).

Tolosako saioarekin kontaktuta, urte amaiera bitarte beste hainbeste izango dituzte eta oraindik deiak jasotzen ari dira, baita Euskal Herriko kanpora ere. Lehen begirada batean, harrigarria dirudi euskaraz egiten ez den toki horietan ere horrelako eskaera izatea. Alde horretatik ere arrakasta handia lortu dute proiektu honekin.

16 doinuko erreperitorioa

Tolosako emanaldian diskoko erreperitorio osoa eskainiko dute bandako eta Oskorririko musikariek, tartean betiko kanta batzuk (*Furra furra*, *Forjarien kanta*, *Gu gaituz Oskorri...*) eta beste batzuk nahiko berriak (*Desertore*, *Gerradantza*, *Arin bero*, *Ezin erran nizun hitzez...*). Zuzendari lanetan, Luis Mari Gartzia Artetxe ariko da baturarekin.

Gaur gauean Tolosako Euskal Herria plazara joaten direnek kontzertu aparta dastatzeko aukera izango dute, bi taldeen arteko uztarketa orijinal honen emaitza zuzen-zuzenean, eta behin bakarrik, entzuteko aukera.



Tolosako Musika Banda eta Oskorri astearte honetako entseguan, Udala Musika Eskolan. JOXEMI SAIZAR

«Maila oneko banda da Tolosan aurkitu duguna, ondo orekatua»

XABIER ZEBERIO » Oskorririko biolinjolea

Musika » Xabier Zeberio tolosarrak «ilusio handia» du kontzertu honen aurrean; jendeak asko disfrutatuko duela uste du

J.SAIZAR

Oskorri taldean bada tolosar bat, Xabier Zeberio biolinjolea eta niklar-pajolea. Diskoko bi doinu ere bereak dira, *Desertore* eta *Ezin erran nizun hitzez*. Kontzertuaren atarian, HITZARAKO hitz batzuk kendu dizkiogu.

Nolako esperientzia ari da izaten?

Polita. Hasieran zalantzak genituen ez genekielako bandek eta entzuleek nola erantzuko zuten, baina bandek ilusio handiz hartu zuten eta jendearen erantzuna oso ona izan da.



IMANOL GARCIA

Zein dituzte doinu gustukoak?
Aitagurea, *Neguminean...* Askok ditut gustuko. Erreperitorio anitza da: doinu berriak, ezagunak, *Furra furra* mitikoa... Horregatik lortu dugu arrakasta izatea.
Nolako bandak topatu dituzte orain arte?

Denetatik, batzuk ia profesionalak, beste batzuk berriz, musika eskolako ikasleek osatuak. Denetara moldatzen gara, kasu batzuetan gai batzuk guk bakarrik joaz.

Asteartean Tolosako bandarekin egin zenuten entsegua.

Oso gustura gelditu ginen. Maila oneko banda aurkitu genuen, ondo orekatua perkusiotik hasi eta gainontzeko soketaraino. Normalean horrelako entseguak ondo ateratzen direnean kontzertua oso ondo ateratzen da, kontuan izanda baliabide gehiago eta hobeak izango direla. Dena den, egun berean azken entsegua egingo dugu.

Tolosarra izanik, zer sentitzen duzu kontzertu honen aurrean?

Josu Salbide txirilajoleak ere lotura handia du Tolosarekin. Ilusio handia dugu. Eguraldiak laguntzen badu, jendeak asko disfrutatuko duela uste dut.

BERRIA
CITROËN C4 SEDÁN ERANTSITAKO BALIOA.



Espazioan inbertitu.
15.150€^{tik}, ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI

Citroën gaman inbertitu ezazu:

Citroën C2 7.980€^{tik}
ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI



Citroën C3 8.500€^{tik}
ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI



Citroën XSARA PICASSO
13.300€^{tik}
ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI



Citroën C4
11.300€^{tik}
ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI



ZATOZ IKUSTERA: **IROVI, S.A.**

Citroën Konzesionario Ofiziala
Industrialdea z/g. • Anoeta / Tolosa
Tel.: 943 65 18 42

CITROËN 
NO TE BANCARAS LO QUE CREDES FIARTE HACER POR TI

Agur egun zoragarria



» Kale kantoitik

Joxemi Saizar

Sanjoanok gainean ditugu. Herriko jai patronalak. Batzuen-tzat serioegiak. Inauterietan egiten dutelako konparaketa, noski. Beti izan dira gorrotagarriak konparazioak. Nik gustukoak ditut jai hauek ere. Badute bere xarma. Agian festaren barrutik bizi ditudalako aspaldidanik. Azkenaldian eskopetarien konpainietan integratu direnek eta Koadrilen Egunaren gorakadaren protagonista direnek berdin pentsatuko dutela iruditzen zait. Badakizue beraz, non dagoen soluzioa: parte hartu!

Dantza, musika eta tradizioa dira San Joan Eguneko protagonistak. Egun polita benetan. Aspal-di (edo inoiz) ikusi ez baduzue, gomendatzen dizuet. Kanpokojende asko harrituta gelditu izan da. Badu bere unetxo ere, Iruñeko sanferminetako bezalako: meza nagusiaren iterean, prozesioaren hasieran, eskopetariak tiro botatzen, Banda San Joan zortzikoa jotzen eta dantzariak dantzatzen hasten direnean da. Niretzat behintzat.

Batal estropaden gorakada ere ez dut aipatu gabe utzi nahi. TA-Kekoek badute meritua, hainbeste neska-mutil gazte arraunean jarritz. Garai bateko giroa berreskuratu dute Oriña ertzeetan. Aurten pizgarri berezia izango da gainera: Korta-Peña desafiua.

Balantzaren beste aldean zezenak jarriko nituzke. Ez naiz oso zalea, ez eta aditua ere, baina aspaldidanik ez dut hutsik egin plazan nire musikari fazetagarrik eta pasodoble eta pasodoble artean zerbait ikusi eta ikasi dut. Izan dira garai hobeak. Ez dut uste aurten plaza beteko denik: tabernari zezenzaleenak boikota egin dio aurtengo kartel ahulari eta lagun zezenzaleak probokazio gisa hartu du iaz ezer erakutsi ez zuen Conde berri-oro ekartzeari. Hori bai, pasodobleak beti bezain ondo aterako dira, urtean entzule gehien (aurten seguraski ez) izaten dugun saioa dela kontuan hartuta.

Zurea da hitza



Atal honetan zuen keak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldeko-hitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Iritzi bat

Joan den astearteko *Diario Vasco*-ren alean, Adegik eskainiriko programa bati buruzko artikulo bat irakurtzeko aukera izan nuen, nire langide batek baten gomendioz. Programa honen helburua, Pymetako gerentek enpresa mailako lider bilakatzen laguntzea omen da.

Programaren barne, beste arlo batzuetako hainbat *Liderrekin* butururiko mahai inguruak ere aipatzen dira, beste urte batzuetan bertan parte hartu izan duten hainbat idazle, artista, musikari, sukaldari... aipatuaz (Joxe Mari Bakero, Kepa Junkera, Argiñano).

Baina «Hauek ote dira etorkizunerako Adegik proposatzen dituen enpresa buru modelokoak? Ez dut guzti horien jokaera gertutik ezagutzen, baina bai batena, oso gertutik gainera.

Ez dut uste nagusiaren eta bere langileen arteko lan baldintzetan izugarrizko aldea izatea, jarraitzeko moduko adibidea denik. Ez eta ere, nagusiaren soldata urteetan hainbat aldiz biderkatu den bitartean, langileen soldata bere horretan mantentzea. Eta bere horretan diodanean, bere horretan esan nahi dut, urteroko gutxieneko igotza ere aplikatu gabe.

Hori bai, helburua enpresa buruak gero eta aberatsago eta bereko-iago izatea baldin bada, zaila adibide hoberik topatzea!!!

Irakurle bat.

XIV orduko ibilaldiko bideoa ikusgai eta salgai

Tolosako Aralar Kirolakeko dendan, XIV ORDUKO MARTXAREN bideo erreportaia ikusteko eta erosteko aukera dago.

Ordubeteko ibilbide Osoko erreportaia; elkarrizketak, datu eta bestelako gai interesgarriak jorratzen direlarik.

Salneurria: 15 euro.

Pablo Dendaluz.

Eta orain, barrakak betirako geltokian?

Bai, badakit zer esango didaten: Baien bati tokatu behar zaioa... Baina ez al da aurrekusten noiz-bait lekua errotazio sistema bidez jartzea? Hala esaten zuten hasiera batean, baina nik dakidana da azken hiru-lau alditan Geltokian joan direla barrakak. Inauterietan errotazio bidez izan behar zuten baina azkenen obrak direla ez direla Geltoki inguruko bizilagunek ordaindu dugu kaltea Inauterietan.

Orain sanjoanok ailegatu dira eta berriro berdin: barrakak Geltokian eta gainera ezer ez esan gabe.

Gaueko ordu txikietan ere soinuak entzuten dira eta lan egin behar dugunontzat edota festa gogoko ez dugunok, zer gertatzen da? Nik ez dut esaten barrakak kentzea baina kokapena aukeratzearan saiatu tarteatzea...

Aurten dagoeneko berandu da baina espero det kexa hau hurrengorako baliagarri izatea. Errespetu Tolosako bizilagun guztiei.

Alliri kaleko bizilagun bat.

Txikizio handiak izan dira Ibarako Gazte Festatan

Betikoa gertatu zen pasa den aste-irurtean Ibarako Gazte Festetan, hau da, gaueko parrandaren ostean txikizio handiak izan zirela. Ja-

rrri berri ziren lorategi ugari txikitu egin zituzten. Benetan ulertzen ez dudan kontu bat da hau. Zer aurre-ratzen da hori eginda? Nork egiten du eta zergatik? Mesedez argitu dezatela, nik ez baitut ulertzen. Udalarie galdetuko nioke zergatik jarri zituzten festa hauek hasi baino egun batzuk lehenago lore berriak jakinda urtero bezala hori gertatuko zela, baina galdera hori baino normalagoa iruditzen zait lehen egin dudun galdera, zer kontu-pontzen dugu horrelakoak egiten? **Jose Mari.**

Jose Mari Gorrotxategiri zorianak

Aupa! Asko gustatu zituzidan Gorrotxategik Aranburu jarri zuen erakusketa eta zori ondu egin nahi-ko nuke egindako lanarengatik.

B Blogteka



Uxola Literatura Lehiaketa

Aurreko astean banatu ziren XXII. Uxola literatura sariak Tolosako Kultur Etxeko aretoan. Aurtengo edizioan ikastetxeko zortzi ikasle izan dira sarietara beraien bederatz lanengatik maila ezberdinetan. Olerkietan, Ayla Corral (3. saria I. mailan); Amaia Juaristi (2. saria II. mailan) eta Arian Valcarcel (3. saria II. mailan). Prosan, berri-iz, Iker Garate (lehena saria I. mailan); Maider Aldazabal (2. saria I. mailan); Irene Royo (3. saria I. mailan); Gorka Sorrairen (lehen saria II. mailan), Maitane Artano (2. saria II. mailan) eta Amaia Juaristi (3. saria II. mailan). Zorionak!

Samaniego ikastetxea

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/bl-ogak/samaniego>

Ikastola Eguna arrakastatsua

Aurreko igandean ospatu genuen aurtengo Ikastolaren Eguna. Eguraldia lagun, jendetza elkartu zen egun osoan zehar antolatutako ekitaldietan.

Bizikleta martxarekin hasi genuen eguna eta Tolosako kaleak zeharkatu genituen lehendabizi. Ondoren Haur Hezkuntzako neska-mutiek jaialdi arrakastatsua eskaini zuten bertaratutako guztiei, eta hori amaitzean Ikastolako abesbatzak urtean zehar

landutako abestiak eskaini zizkiguten.

Bazkarian sorturiko giroa paregabe izan zen, ia 1000 lagun elkartu ginelarik. Dударik gabe, bazkaria prestatzen eta zerbitzatzen lan egiten zuten guraso eta ikasle guztiak zori ondu behar ditugu, dena primeran joan baituzten.

Arratsaldean, puzgarri eta joku-kuetz gain, "Unsain anaiekin" dantza saio ederrak egin genituen.

www.laskorainikastola.net orrian Ikastola Eguneko argazkiak dituzue eskura.

Laskorain

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/bl-ogak/laskorain>

Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta GIPUZKOAKO beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

ROSA IRAGORRI ROTETA

Bihotzez inoiz ahaztuko ez zaitugulako muxu handi bat eta gero arte

Aitziber, Aiora, Saioa, Izaro, Garazi, Olatz, Erika, Maialen, Maider, Aitziber, June eta Alazne

OIARTZUN
2008ko
ekainaren 20an

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)



Ibarrako ezker abertzaleak prentsaurrekoa eskaini zuen atzo Haur Eskolaren aurrean. ASIER IMAZ

Ezker abertzalea: «Udalak Haur Eskolaren inguruan hartutako erabakia larria da»

Ibarra » Ezker abertzaleak Udalarari «herritarrei bizkarra ematea» leporatu zion atzo eskaini zuen prentsaurrekoan.

ASIER IMAZ

Ibarrako ezker abertzaleak atzo prentsaurrekoa eskaini zuen Udal Haur Eskolaren aurrean, «Udalak herriko hezkuntz proiektua kalte-tzen duten zenbait erabaki» hartu dituela salatzen eta hauen aurrean euren iritzia plazaratzeko.

Prentsaurrekoan bost ibartarrek hartu zuten parte ezker abertzalearen izenean: Eugenio Lopez-tegik, Uzturpe Ikastolaren sorreran lanean aritutako gurasoak; Imanol Lizartzak, Udal Haur Eskolaren sorreran lan egin zuen ezker abertzalearen zinegotziak eta egun Uzturpeko gurasoak; Aitziber Zabala Udal Haur Eskolako gurasoak eta Edurne Urdanpilleta hautetsi independentistak.

Prentsaurrekoaren ardatzak

Lehenik Udal Haur Eskola «zergatik eta nola» jarri zen martxan azaldu zuten. Ondoren, Udalak hartutako erabakiak ezker abertzalearen ustez zein «ondorio» ekar ditzakeen aipatu zuten. Azkenik EAJ, PSE-EE, EA, eta EB-Aralar alderdiei «boterea ibartarren nahien aurka erabiltzea» leporatu zion.

«Zergatik, noiz eta nola»

Ezker abertzaleak 0-16 bitarteko herriko hezkuntz proiektuaren barnean «Udal Haur Eskolak duen garrantzia» azpimarratu zuten, bere sorrera nola etazergatik izan zen gogoratuz: «Herri bateko hezkuntza ereduak herriko izaera

eta nortasunean eragin zuzena du. Ibarrako haurrak herrian hazi eta hezi behar dutenaren uste apaletik, beti egin dugu herriko hezkuntza proiektuaren alde eta arrazoï honengatik, ikastolaren sorreratik gaurdaino lanean aritu gara 0-16 herriko hezkuntz proiektuaren alde».

Ezker abertzalearen esanetan, Ibarra Tolosaren ondoan aurkitutako «urteetan herriko haurrak bertan mantentzeko arazoak» ekarri ditu: «Ibarra lotarako herri izateko arriskuan zegoenean eta ikastolaren etorkizuna kinka larrian zegoenean, ezker abertzaleak herriko beste eragileekin elkar-lanean herriko hezkuntzaren aldeko apustu garbia egin zuen Uzturpe Udal Haur Eskola abian jarritz, euro askotako inbertsioa egin zuen Udalak ezker abertzaleak zuzentzen zuenean».

Prentsaurrean azaldu zuten, «sei urte igaro direnean fruituak jaso ditugu». Bi datu aipatu zituzten; «ikastolako haur kopuruak gorantz egin du nabarmenki Haur Eskolasortu eta gero: 2001ean Ibarrrako 2-3 urteko haurren %21ak erabiltzen zuten ikastola eta 2007an %68ak. Bestalde gurasoak oso gustura daude egungo Haur Eskola zerbitzuarekin».

«Udalaren erabakia»

Ezker abertzalearen esanetan, «errealitate bat eraikitzea lortu denean eta arazorik ez zegoenean, Udalak Haur Eskola partzuergoaren esku uztea erabaki du». Erabaki honen inguruan, modua eta ondorioak salatu zituzten: «900 sinadura, 450 pertsonen osatutako prentsaurrekoa eta manifestazioa, iritzi artikulak, erabakia urte betez atzeratzeko eskaera masiboa... baina udal ordezkari hauek itsuak

eta gorrak direla dirudi, beste behin ere herritarren iritziaren gainetik beraien erabakia tinko mantenduz eta bizkarra emanaz Ibarrari». Erabaki honek aurreantzean eragin ditzakeen ondorioak «larriak» direla uste dute. Datorren ikasturtetik aurrera 0-16 hezkuntza proiektuan «haustura» emango da, partzuergoak 0-2 urteko zerbitzua eskainiz eta ikastolak 2-16 urte bitarteko zerbitzua. Egungo Udal Haur Eskola herrian bertatik kudeatzen da, «herritar orok parte har dezakeelarik bertako antolamenduan». 2008ko irailetik aurrera beriz egoitza Eibarren duen Partzuergoangandik kudeatua izango da. «Diru kon-destituz egingo dira eta bigarrenik 2-3 urteko haurren lokalerako obrak egin beharko dituzte, 223.000 euroko lanak. Gezurra badirudi ere, ekaina erdialdean gaudete eta obrak oraindik ez dira hasi».

Alderdiei kritika

Amaitzeko ezker abertzaleak «herritarren gehiengoa» ordezkatzen duela aipatu zuten, «ez soilik iritzi politikoetan, biharko Ibarra irudikatzen garaian herritarren nahiarekin bat egin dugu eta hori argi geratu da herri baten geroa marrazteko hain garrantzitsua den hezkuntza bezalako gai batetan». Gai honen inguruan herrian sortu den giroaren inguruan, alderdi politikoko bakoitza «erretiratatzeko» balio izan duela aipatu zuten; «gu herriaren nahiarekin bat eginenez eta EAJ, PSE-EE, EA eta Ezker Batua-Aralar ez dagokien bategia Ibartarren nahien aurka erabiltzen».



Maite Aranalde eta Haimar Altuna eskal presoak. HITZA

Aranalde eta Altunari 6 urteko espetxe zigorra ezarri diete

Politika » Ibartarrari eta lizartzarri «gaizkile elkartearen» partaide izatea leporatu die epaileak sententzian.

A. IMAZ

Maite Aranalde eta Haimar Altuna-naatzo epaitu zituzten Parisen, euren batera 2005eko martxoaren 20ean atxilotu zuten Iñaki Arietaleanizbeasko beragarrekin batera.

Fiskalak Aranalde ibartarrentzat eta Altuna lizartzarrentzat 8 urteko espetxe zigorra eskatu zituen arren, epaileak 6na urteko sententzia plazaratu zuten, «gaizkile elkargoaren» parte izatea leporatuz. Arietaleanizbeaskoari 8 urteko espetxe zigorra ezarri zioten.

3 urte eta 3 hilabete espetxean

Maite Aranalde eta Haimar Altuna 2005. urteko martxoaren atxilotu zituen polizia frantzesak, Iñaki Arietaleanizbeasko bergatarrekin batera Montpellier (Frantzia) hiriarren ondoan aurkitzen den Le Cap d'Adge herrian. Etakide izatea leporatuta azken hiru urte hauetan espetxean egon dira Euskal Herriatik urrun.

Laburrak

Alurr Lekeition ariko da asteburu honetan

IBARRA » Alurr Dantza Taldeak emanaldia eskainiko du Lekeition (Bizkaia) bihar eta etzi. Lekeition Euskal Ezkontza ekitaldiaren 32. edizioan parte hartuko dute. Euskal Ezkontza gerra aurreko ohitura da Lekeition, diktaduraren urteetan izan ezik, urtero ospatu den ekitaldia da. Bihar 22:00etan dantza eta musika ikuskizunaz arduratuko dira eta etzi 19:30ean ikuskizuna eskainiko dute.

Gerra zibila haur baten ikuspuntutik gaur

ELDUAIN » Kutxak sustatu eta finantziatuta bideo emanaldia egongo da Elduaingo Larte kultur etxean gaur 19:00etan. Diapolan produktioak Hogeita hamaseian 13 urte edukitzea lana eskainiko du. Bertan Joaquín Galvez hondarribarraren historia kontatzen da. Gaur egun, 80 urte ditu, eta atzo gertatutako gauza balitz bezala oroitzen du iragana. 13 urte zituen Espainiako gerra zibila hasi zenean eta...

Estebe Ezkurdia, medikua: «Gustura egondu naiz hemen urte hauetan»

Medikuntza »12 urtez Leitzan, Areson, Aranontan eta Goizuetan egin du lan eta herenegun bere azken lan eguna izan zen hemen.

NAIARA GARZIA

Estebe Ezkurdia medikua 12 urtez egon da Leitzan, Areson, Goizuetan eta Aranontan lanean eta herenegun bere azkeneko guardia egin zuen, Itxaro Gereño erizain areso-arrarekin batera. Azpeitiarra joan da lanera.

Urte hauetan guztietan guardiak egin ditu batik bat, baina goizeko ordezkapenetan, medikuntza orokorrean eta pediatrian ere egin du lan. «Guardietan denetatik ikusten duzu, katarro simple bat, edo goizetan etorri ezin den jendea gauetz etortzen da. Gero bestelakoak ere izaten dira, larrialdi serioak edo hil zorian dagoen jendearen jarraipena egitea. Baina guardien kontua horrela saldu da», dio Ezkurdiak, «edozein gauzetarako etorri daitezkeela guardian zaudela. Gauzak aldatu egin dira, lehenago SOS Deiak-era deitu eta edozein gauza hartzeko medikuarengana jo beharra zen. Orain ez bada larrialdi bat, osasun etxera jotzen da zuzenean».

«Jendeak ez daki ume bat nola manejaratu, orain ez tula pixka batekin etorri egiten dira»

12 urte hauetan ume asko atenuatu ditu Ezkurdiak. «Askotan lan ez gainezka ibili gara. Jendeak ez daki ume bat nola manejaratu. Lehenago itxaron egiten zuten, orain ez tula pixka batekin etorri egiten dira, beldur gehiago dago». Gainera, Nafarroan guardian dauden medikuak etxeetara joaten dira. «Hemen etxeetara joaten gara. Gipuzkoan ez da horrela. Etxekoak beste mediku batzuk egiten dute. Gu, berriz, etxean, kalean eta osasun etxean bertan ibiltzen gara. Larrialdi bat egonez gero, Leitzan bada anbulantzia bat eta aldaketa bidean egiten da, gu Iruñeraino joan beharrean, eta gaixoa erabartean mediku batekin dago».

Umeekiko gurasoek duten jarrerari dagokionez, «jendeak ardurabeste norbaitengan uztea» bilatzen duela dio. «Baina azkenean umea guraso horiena da. Gaur egun soluzioak nahiz izaten ditu jendeak, eta azkarrek, jendeak ez daki gaixo egoten edo ez du gaixotasuna ulertzen». Gaixotasunarekiko jarrera aldatu egin da Estebe Ezkurdiaren ustez. «Jendeak lehenago gehiago onartzen zuen gaixo egotea. Halere orain lan aldetik jendeak presio gehiago izai-



Estebe Ezkurdia medikua, Itxaro Gereño erizainarekin, elkarrekin pasa zuten azkeneko guardian, herenegun. N. GARZIA

ten du eta honek ere zerikusi zuzena izan ohi du jarrera horrekin».

Herri batean mediku

Herrian lan egiteak bere abantailak dituela dio Ezkurdiak. «Hemen jendea jarraipen bat egiten diozu, eta beti ikusiko duzu berriro, hiri batean ez dago horretarako aukerarik».

Gaur egun jendeak medikuarengana gehiago jotzen duen arren, «informazio asko» daukela dio Gereño erizainak. «Lehenago medikuak esaten zuten begi itxienekin betetzen zuten, baina orain medikuarena beste irizki bat besterik ez da. Askotan akordio antzeko batizaten da». «Gauzaserio bat deanean izan ezik», gehitzen du Ezkurdiak.

Ezkurdiak hemen beste lekuetan baino errespetu handiagoa duela dio. «Jendeak 112ra deitu behar du eta ikasi du. Gauetan jendeak beste lekuetan baino errespetu gehiago dauka».

Azken 12 urte hauetan zenbait gaitez gora egin dute Ezkurdiaren ustez. Alergiaren eta asmaren kasua da hau, gero eta jende gehi-

«Azkenean familia guztia ezagutzen duzu eta jendearekin harreman estuagoa sortzen duzu»

gok izaten baititu, eta adin guztietakoak. Minbiziarena, berriz, Leitzan egoera beste herri batzuetan bezalakoa dela dio. «Minbiziari dagokionez, beste leku batzuetan adina dago. Guri iruditzen zitzaie-

gun asko zegoela, baina ikerketa bat egin zen eta beste lekuetan ere hemen adina dago».

Osasun etxearen egoeraren berri

Duela gutxi ginekologia, pediatria eta psikologia zerbitzuen eskaera egin zen. «Leku fisikorik ordea ez dago, ezta espezialistarik ere. Ongi egongo litzateke, baina gauzak dauden bezala... Aspaldiko eskaera da. Lehen mediku nahikoak izaten ziren, eta orain alderantziz. Kanpotik ere ekartzen hasiak dira dagoeneko. Hemen, esaterako, beste 2 mediku beharko lirateke larrialdietarako. Orain 2 daude. Goizez 2 mediku izaten dira eta pediatria bat falta da». Orain Ezkurdiak lana utzi duela, 3 faltako dira, eta goizekoak guardiak egin beharko ditu. «Oraingoz ez dute beste medikurik jarriko, ez dagoelako medikurik», dio Gereñoak. «Udan justu xamar ibiliko gara.

Baldintza horietan jendeak ez du lanik egin nahi, goizez lana egiten duenak guardiak egin behar baititu. Oposaketak eta gero honera 4 mediku bidali beharko litzaketek, baina...».

Leitza, lanerako leku 'ona'

Estebek Leitza lanerako leku «ona» dela dio. «Leitzan eta Areson beste lekuekin konparatuz gero ez dago hainbeste jende. Kontua da jendea edo zerengatik etortzen dela, baina beste leku batzuekin konparatuz, gutxiago etortzen dira».

Ezkurdiak herrian pasatako 12 urteen balantzea egin du. «Gustura egondu naiz hemen urte hauetan, leku ezberdinetan ibili naiz eta aldatzeko aukerak ere izan ditut. Arazo serioerik ez dut izan. Gainera herri batean azkenean familia guztia ezagutzen duzu eta jendearekin harreman estuagoa sortzen da».



Leitza osasun etxeko sarrera. J. ASTIBIA

Manipulatzaile txartela ateratzeko izena emateko epea zabalik

Ekonomia »Ikastaroa uztailaren 2an egingen da eta izena emateko epea ekainaren 26an amaituko da.

N. GARZIA

Manipulatzaile txartela lortzeko ikastaroan parte hartzeko izena emateko epea zabaldu dute, ekainaren 26ra arte. Ikastaroa uztailaren 2an izanen da, 16:30etik 20:30era, Erleta eskolan.

Ikastaro hau soilik ostalaritza sektoreko langileei zuzenduta dago, eta gutxienez 15 pertsona behar dira ikastaroa egin dadin. Bestalde, 25 pertsonetatik gora ez dira onartuko, baina ikastarotik kanpo geldituz gero, ondorengo telefono zenbakira deitzea gomendatzen dute, norbaitek ikastaroa bertan behara utzi badu bere lekua betetzeko: 948 62 51 22. Izena emateko ere zenbaki horretara deitu behar da. Ikastaroak 30 euro balio ditu eta diru sarrera Vasconia banketxean egin behar da.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.
Alegialdea. Osasun z.: 943 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.
Medikua: 943 65 23 39
Asteasu. Medikua: 943 692423
Baliarrain. Medikua: 943 889003
Berastegi-Elduain.
Medikua: 943 683361
Bidegoian. Medikua: 943 681134
Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411
Ikaztegieta. Medikua: 943 653329
Iruia. Osasun zentroa: 943 690720
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Orendain. Medikua: 943 655595
Orexa. Medikua: 943 682228
Tolosa.
Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111
San Esteban: 943 006800
Gernikako arbola: 943 006900
Amarozko dispen: 943 672637
Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
DYA: 943 672536
Gurutze Gorria: 943 674888
Villabona. Anbulat.: 943 006970
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930
GARRAIOAK.
Renfe: 902 24 02 02
Donostiako autobusa: 943 361740
Tolosalde bus: 943 650621
Leitzaran autob. : 948 221015
Taxia: 943 670420
Taxia (Leitza): 608 873016
BESTERIK.
Ertzaintza: 943 538820
Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858
Tolargi: 943 650016
Iurramendi egoitza: 943 670325
Tolosa gasa: 943 675320



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra/Leitza: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Tolosa.** Aitzol Udal Euskaltegiaren 25. urteurren ospakizunei amaiera emateko Kanpingags taldearen *Hor al zaude* antzezlanaren Leidor aretoan 20:30ean. Joseba Apaolazak zuzendutako eta Asier Hormaza nahiz Ainhoa Aierbek antzeztutako emanaldia.

Hitzaldia

■ **Larraul.** Aitzpea Leizaola antropologoak *Gaurik motzena, gaurik magikoena; San Joan gaueko eritu zahar eta berriak* hitzaldia emango du udako solstizioari buruz, 20:00etan Kultur Etxean, Katillutxulo elkaratek antolatuta.
■ **Villabona.** Iñaki Eizmendik eta

Julio Ibarra *Nola eragin seme-alaben hizkuntza ohituretan?* hitzaldia emango dute Gurea aretoan 19:00etan eta 21:00etan Irrintzi elkaratean euskara ikasten aritu direnen afaria.

Zinema

■ **Zizurkil.** Adiskidetuak elkaratek egindako *Tu carcel* dokumentala emango dute Atxulondo kultur etxean 19:30ean.

Jaiak

■ **Abaltzisketa.** 20:30etan barri-kotea herriko plazan; ondoren bertso-saioa izango dute Iker Zubeldia eta Iban Urdangarinek; 23:30etan Hell Beer Boys, Manti-

sa eta Ezinean taldeen kontzertuak eta tartean txerri harrapaketa pilotalekuan.

■ **Tolosa.** Sanjoanek: 17:30etan Haur liburutegiko festa; 1, 2, 3... *Iñaxito* bertso antzerkia, txokolata; 20:30 Leidor antzokian *Hor al zaude?* antzezlan; 20:00etan Berdur0a plazan Isidro Larrañaga Akordeo Orkestraren kontzertua eta 22:00etan Javi Muguruza Kultur Etxean.

Deialdiak

■ **Abaltzisketa.** San Joan jaietan, etzi, 18:00etan, zaldi lasterketa antolatuta dute Amezketa eta Abaltzisketa artean. Izen-ematea, udal-letxean.

■ **Alegia.** Alegiako Intxurre pilota eskolako denboraldi amaieran afaria egingo dute heldu den uztailaren 3an. Afarira etortzeko pilota eskolakoek Alegiako Kultur eta Kirol Etxean eman beharko dute izena.

■ **Anoeta.** Udaleku irekiak izango dira LH1 eta 6 bitartekoentzat, hildaren 23tik uztailaren 8ra, eta uztailaren 9tik 24ra, asteleheneretik ostiralera, 09:30etik 13:30era. Izen-ematea, udal-letxean.

■ **Tolosa.** Ekainaren 28an, 16:30etik aurrera Bizikleta festa izango da Zerkausiko goiko solairuan Kilometroak 08ren alde. Izen-ematea, www.kilometroak.net,

egunean bertan, kmk.ikuskitza-nak@ikastola.net edo 688 658004 telefonon.

Erakusketak

■ **Villabona.** Kultur tailerretan egindako lanen erakusketak Gurean 17:00etatik 20:00etara.

Irteerak

■ **Villabona.** Kaxkagor elkaratek Hernaniko Aquaparkera egun pasa antolatuta du Aiztondoko 12 eta 16 urte arteko gazteentzat hildaren 21ean. Izen-ematea: kaxkagor@hotmail.com edo 677 48 89 10 edo 636 63 86 35an.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunik.

Aurten ere abian da Tropela!

Lehiaketak sarean, euskaraz, doan eta sariekkin...
tropela.net

hitza

Kia pro_cee'd
7 urteko bermearekin

GURU GIZE AUTOAK

aitor-gurutze@telefonica.net
Benta Aldea industriagunea z/g • Anoeta 20270
Tel.: 943654025 - 943650352 • Faxa: 943 652 653

XOILAN, S. L.

Telf.-Faxa: 943 67 06 26
659 04 57 65
Igarondo, 1-behea • TOLOSA

- garbiketa orokorrak lokal komertzialen mantenua
- bulegoak • fabrikak
- ikastetxeak etabar
- lur zoruei distira eman
- injekzio sistemak moketen garbiketa eta tapizen garbiketa orokorrean

NEREX
Lentzeria

Bodiak
Pijamak
Kamisoiak
Kamisetak
Botoiak
Pikardiak
Tangak

Errementari Kalea, z/g • TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

"Xirimiri"
Txokolategia

Errementari kalea, 40
20400 Tolosa
Telef. 943 67 52 23

FESTAK ONDO PASA!

TOLARGI
Tolosako argia. Zurea

Pablo Gorosabel kalea, 34 B. • TOLOSA
Tel. 943 65 00 16 • Faxa: 943 65 00 65
Telf., matxurak: 610 44 00 88
E-posta: tolargi@tolargi.com
www.tolargi.com

PEUGEOT

Hemen dago

308 Sw Berria

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban Auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tfno: 943-650337
Fax: 943-452936
tolosa@tolosa.sedpeugeot.com